

**ITSUKI IRRATIAGAZ LANKIDETZA HITZARMENA.**

Bermeon, 2020ko abuztuaren 10ean.

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko idazkari akzidentalak, fede emoten dau.

**BATU DIRA**

ALDE BATETIK: MARIA IDOYA PLATAS ARENAZA And. [REDACTED] Bermeoko Udaleko alkateordea.

BESTE ALDETIK: IBON ETXEBARRIA JORGE jn. [REDACTED] Itsuki Irratiko zuzendaria.

**PARTE HARTZAILEAK**

MARIA IDOYA PLATAS ARENAZA And., Bermeoko Udalaren orde z eta izenean, 2020ko uztailaren 28ko Tokiko Gobernu Batzarrean erabagitakoari jarraiki, eta Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan Legeko 21.1.b) eta r) artikuluek emondako ahalmenaren arabera, eta

beste aldetik,

IBON ETXEBARRIA JORGE jn., ITSUKI IRRATI A ren orde z eta izenean, ITSUKI IRRATI KO zuzendari eta Berko Kultur Taldeko presidente legez, horree k kargue k emoten deusiezan ahalmenen arabera.

**ADIERAZTEN DABE**

Bermeoko udalerrian irrat i bat baino gehiago egon baziran be, gaur egun geratzen dan herriko irrat i bakarra ITSUKI IRRATIA da.

Herrian irrat i bat eukitea, herriko barriek, gertakizunek, musikeak eta bitxikeriek lekua euki daien, guztiz interesgarritzat jot en da herritarrei jagokenez eta, herritarren

*T. Idoia Platas*

*[Signature]*

*[Signature]*

interes hori kontuan hartuta, ondo informatuta egon daitezen, geratzen dan irrati bakarra mantentzea nahitaezkoztat jotzen da.

Eta geratzen dan irrati bakarrari aurretik egon diranei jazotakoa ez jazoteko, ezinbestekoztat jotzen da udalaren eta irratia-aren arteko lankidetzeta, udalak, beraren esku daukazan bideak erabilita, behar dauen bultzakadea emonda, eta irratia-ak, kutsu herriko- hori mantenduta, herritarrak uneoro ondo informatuta eukita.

Hori holan, alderdi bien arteko lankidetzeta arautzea da hitzarmen honen helburua.

### ERABAGI DABE

Lehenengoa: Azken herri irrati hau galdu ez daiten, euki leikezan finantza arazoak arintzeko, Bermeoko Udalak 20.000 euroko dirulaguntzeta emongo deutso Itsuki Irratiari. Dirulaguntzeta hau Plangintzeta Estrategikoaren 1.1 lerroagaz bat dator, hau da, Nortasun propioaren jabe dan herria lerroagaz.

Dirulaguntzeta modu honetan ordainduko da:

- % 60: 12.000.- euro hitzarmena sinatzerakoan.
- %25: 5.000,00.- euro lehenengo zatiaren gastuen justifikazinoa udalak onartzen dauenean.
- %15: 3.000,00.- euro gastu osoa justifikatzen danean

Aurrekontuaren partida honakoa da: 00800-33411-4810117.

Dirulaguntzaren aurrerapena bermatzeko ez da beahrrazkoa izango bermea ipintea, talde horren ibilbidea ikusirik ez delako aurreikusten jasotako laguntzeta bere helburura ez bideratzea edota bestelako ezertan xahutzea.

Bigarrena: Dirulaguntzeta honeek Dirulaguntzen Lege Orokorra onartzen dauan 38/2003 Legearen 28. artikulua-aren arabera emon leikez, eta bertan xedatutako baldintzak bete beharko dira.

Era berean, dirulaguntzeta honeen araubidea, aitatutako 38/2003 Legean jasotakoa izango da.

*Edne Peltola*

*gp*



Hirugarrena: Diruz laguntzeko gastuak izango dira zalantzarik barik beharrianekoak diranak hitzarmen honetan araututako dirulaguntza betetzeko.

Dirulaguntza honeek lortu leikezan bestelako sarrera publiko zein pribatuekatz bateragarriak izango dira, beti be gain-finantzaketarik ez dagoen bitartean.

Halan izanda Itsuki Irratia behartuta egongo da bere finantzaketarako lortzen dauzan bestelako sarrera eta dirulaguntzen barri emotera eta, danatara %100etik gorako finantzaketarik lortzen badau, Bermeoko Udalari horren barri emoten, gain-finantzatzutako kopuruak berreskuratzeko prozedureari hasiera emon daian.

Laugarrena: Itsuki Irratiak, ostera, irratiazen izakera herrikoia galdu ez daiten, eta herriaren onuran, herritarrak ondo informatuta egin daitezen, Bermeoko barriei emongo deutse lehentasuna. Era berean, Bermeon normalean erabilten dan hizkuntza euskerea dan ezkeru, eta Bermeoko euskaldun kopuruak kontuan eukita, Itsuki irratiazen hizkuntza erispide honeek bete beharko dauz:

- Egiten dauen emisinoari Bermeoko euskaldun kopuruaren araberrako euskerazko emisino-kuotea ipintea, hau da, euskerazko emisinoa % 75ekoa izango da.
- Euskal musikea bermatu beharko da. Horretarako, euskal musikeak izan beharreko gitxienerako kuotea % 20koa izango da.
- Beste irratia batzuekatz emisino loturarik egin behar izatekotan, euskerazko komunikabidekatz egitea.
- Publizidadea (iragarki komertzialak) euskeraz egiten ahalegintzea. Euskeraz egiten ez dan kasuetan, ostera, euskereari lehentasuna emotea, eta eduki garrantzitsuenak euskeraz esatea.
- Emitiduko diran iragarki, ohar eta ganerakoetan euskerazko proportzinoa % 75eko izatea. Erderaz baten esaten dan baktuxezen, euskeraz hiru bider esan beharko da.
- Erabiliko dan euskerea kalidadezkoa izango da.
- Euskerearen normalizazinoagatz zerikusia daukien ekimen guztiak zabaldu eta sustatu beharko dauz.
- Udalagatzko hartu-emonak euskeraz izango dira, eta prentsaurreko eta abarretako informazinoa euskeraz emongo dau udalak, bai ahoz, eta bai idatziz. Informazino hori euskeraz emitiduko dau Itsuki irratiazen.

Bosgarrena: Itsuki Irratiak, Bermeoko Udalak emoten deutson laguntzea herritarren onurarako izan daien, eta interes orokorraren mesedean, aurreko atalean aitatutakoatz

Idonea Perea

→



ganera, udalak emoten dauzan prentsurrekotan azaltzen diran barriak, gitxienez era laburrean aitatu beharko dauz, entzuleek, herriko gaien barri euki daien. Horretarako, ahal dala, Udalak deitzen dauzan prentsurrekotara etorri beharko dau.

Seigarrena: Bardin, herritarrak informatuta egon daitezcan, Udalak bideratzen dauzan Parte Hartze prozesuen lagungarri moduan, hilean behin, gehienez, saio berezi bat egingo da, Udalak proposatzen daua(za)n gai zehatz bat edo gehiagori buruz. Saio horretan, Udalak egoki ikusten dau(za)n pertsonak edo pertsonak hartuko dabe parte, gaiaren inguruko argibide guztiak emoten.

Zazpigarrena: Era berean, Udalak argitaratzen dauzan Bandoen barri emon beharko dau, astean hirutan, gitxienez, audientzia kota altuenetakoa dagoen orduetan zehar, herritarrak jakitun egon daitezcan eta jasotako dirulaguntza herritarrengan itzuliera euki daien. Horretarako, Bermeoko Udalak, argitaratuko dauzan Bandoak bideratuko deutsoz Itsuki Irratiari.

Zortzigarrena: Bestalde, Bandoak megafonia bidez iragartzen diranean, Itsuki Irratiak bandoaren grabaketa prestatzen dau eta, urteko lehenengoko 10 grabaketak doakoak izango dira. Hortik gorakoak, 6 eurotan ordainduko dira, kontutan eukita herritarren onuran egiten dala.

Bederatzigarrena: Aitatutako guztiak aparte, Bermeoko Udalak, 50 publizitate iragarki labur (cuña) sartzeko aukera izango dau, dohainik, urteko, interes orokorreko gaietan herritarrak jakitun egon daitezcan. Hortik gorakoak, erantsita agertzen diran prezioen arabera ordainduko dira.

Eta aitatutako guztiak, herritarren informazioa bermatuta egon daiten, eta interes orokorra bermatze aldera, egin leikezan bestelako difusino ekimenen kalte barik.

Hamargarrena: Jasotako laguntza funtzionamendu arrunta estaltzeko erabiliko da eta, hirugarrena atalean adierazoten dan moduan, beste sarrera eta laguntzekaz bateragarria bada be, ezingo da inolaz ere gain-finantzaketarik egon.

Gain-finantzaketarik egongo balitz, horren barri emon beharko deutso udalari, eta %100eko finantzaketatik gora egiten dabezan kopuruak itzuli, kopuruak berreskuratzeko prozedura izapidetu ondoren.

Halan egingo ez balitz, zigorra ipinteko arrazoia izango litzateke, itzuli beharreko kopuru horreeri lege interesak aplikatzearen kalte barik.

Itsuki Irratiari

p



Hamaikagarrena: Dirulaguntza horretarako erabili dala egiaztatzeko eta Lankidetzaren hitzarmena bete dala justifikatzeko, Itsuki Irratiko ordezkariak, urteko aurrekontua eta diru-sarreraren eta urtearen balantzea aurkeztu beharko dauz, gastu eta sarrerak modu zehatzean jasota.

Agiri honeek gastuak justifikatzen dabean dokumentuek lagunduta joango dira, hala nola, fakturak, langileen soldata-orriak, gizarte segurantzako kotizatze agiriak, etab. Fakturak, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak arautzen dauzan fakturazinoak betebeharrak bete beharko dabez.

Dokumentuak jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izan leikez.

Era berean, memoria txostena aurkeztu beharko dau, non hitzarmena zelan eta noiz bete dan azaldu beharko dan zehatz. Txosten honeri laguntzeko, entzunezko fitxategiak erantsi ahal izango dira, adibide zehatzak aurkezte aldera.

Agiri guzti honeek, 2021. urteko urtarrilaren barruan aurkeztuko dira, dirulaguntza emondako helburura bideratu dala egiaztatu eta gain-finantziaketa ete dagoan aztertu ahal izateko.

Aurreko laguntzaren bat justifikatzen ez den artean, ez da onartuko berririk, egokiak diran zigor edo itzultze espedienteak izapidetzearen kalte barik.

Hamabigarrena: Bermeoko Udalak, bere aldetik, eta Dirulaguntzak arautzen dauzan 38/2003 Legearen aginduei jarraiki, honako eginkizunak beteko dauz:

- Emondako dirulaguntzearen kontrolak egin, dirulaguntzea oinarritzen dabean helburua eta egintzak benetan egin dirala egiaztatu ahal izateko.
- Lege berari jarraiki, dirulaguntzearen oinarriak ez dirala bete ikusten bada, edota ez dirala era egokian justifikatu ikusi ezker, desbideratutako diru publikoa berreskuratzeko, udalak jagokozan prozedura eta espedienteak izapidetuko dauz.
- Era berean, hitzarmen honetan jasotako baldintzak zehatz betetzen ez dirala ikusi ezker, emondako dirulaguntza berreskuratzeko, udalak jagokozan prozedura eta espedienteak izapidetuko dauz.
- Eta bardin jokatu dau udalak, emondako kopuruak hitzarmen honetan jasotako helburuak betetzera bideratu beharrean bestelakoetara bideratu dirala egiaztatuko balitz.



Hamahirugarrena: Hitzarmen honen iraupena urte baterako aurreikusten da, 2020ko urtarrilaren 1etik zenbatzen hasita. Halanda be, alde biak ados egon ezker, hitzarmenaren iraupena urtero luzatu ahal izango da, baina gehieneko iraupena, luzapenak barne, ezin izango da lau urte baino gehiagokoa izan.

Urte bateko diru laguntzaren kopuruak ez dau ezelako eskubiderik ematen beste urte baterako.

Hamalagarrena: Arau-hauste legez hartuko dira jokabide honeek:

- 1.- Hirugarrena atalean jasotako erispideak ez betetzea.
- 2.- Laugarren ataletik zortzigarren atalera jasotako betebeharrak ez betetzea.
- 3.- Jasotako dirulaguntza ez justifikatzea horretarako emondako epean.
- 4.- Eskuratutako bestelako sarreren barri ez emotea, bardin publikoak zein pribatuak izan.
- 5.- Gain-finantzaketarik balego, horren barri ez emotea edota itzuli beharreko kopuruak ez itzultzea.

Lehenengo bi ataletan jasotako arau-hausteen kasuan, onartutako dirulaguntza murriztea ekarriko dau zigor moduan, egindako ez betetzeen garrantziaren arabera kalkulatu dana, ez bada ez betetzeen larritasunagaitik dirulaguntza osorik itzultzea erabagitzen dala.

Azken hiru ataletan aurreikusitako arau-hausteen kasuan, dirulaguntza osorik itzultzea ekarriko dau zigor moduan, eta hurrengo urteetan dirulaguntza barriak eskuratzeko ezintasuna suposatuko dau.

Zigor horreek ipinteko, legediak aurreikusitako prozedura jarraituko da eta erabagia hartu orduko interesdunari entzunaldia emoten jakola bermatuko da.

Hamabosgarrena: Hitzarmen honeri honako legedia aplikatuko jako:

1. Dirulaguntzak arautzen dauzan 38/2003 Legea.
2. Dirulaguntzen Legearen Erregelamendua onartzen dauan 887/2006 Errege Dekretua.
3. Zuzenbide administratiboko arau orokorrak.
4. Zuzenbide pribatuko arau orokorrak.

Isabel Plaza





Hori horrela, hitzarmenean aurreikusten ez dan guztirako, edozein zalantza argitu eta hitzarmena interpretatzeko, aitatutako legediak aurreikusitakoa jarraituko da zehatz.

Hamaseigarrena: Hitzarmen honen izaera administratiboa da. Ondorioz, honen aplikazio edo interpretazioan hartzen diran erabagiak bide administratiboari amaiera emongo deuse eta zuzenean aplikagarriak izango dira, Administrazioarekiko Auzibidean errekurrizko eskubidearen kalte barik.

Hamazazpigarrena: Hitzarmen hau eta emakidarako erabagia dirulaguntzen base nazionalean argitaratuko dira, Sektore Publikoa Arrazionalizatzeari eta Administrazioa erreformatzeko beste neurri batzueri buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeak aldatutako dirulaguntzen Lege Orokorren 20. artikulua betez.

Eta holan agertu daiten, honako hau emoten dabenek agiri hau onartzen dabe, eta lau ale sinatu, eragin bakarrerako.

**BERMEOKO UDALA**  
M. Idoya Platas Arenaza



Karmele Muñoa Arrigain  
IDAZKARI AKZIDENTALA



**ITSUKI IRRATIA**  
Ibon Etxebarria Jorge





16º Segundo	Bakoitza Unidad	Beharapena Descuento	Oparia Regalo	Danataria Total
Menos de 25 kuñas 25 kuñatik behera	2,85 €			
25 kuña	2,80 €			84,7 €
50 kuña	2,70 €			163,35 €
75 kuña	2,60 €		+5 kuña	235,95 €
100 kuña	2,55 €	-5 %	+10 kuña	293,12 €
150 kuña	2,50 €	-5 %	+20 kuña	431,06 €
300 kuña	2,40 €	-10 %	+30 kuña	784,08 €

20º Segundo	Bakoitza Unidad	Beharapena Descuento	Oparia Regalo	Danataria Total
Menos de 25 kuñas 25 kuñatik behera	3,25 €			
25 kuña	3,20 €			96,8 €
50 kuña	3,10 €			187,55 €
75 kuña	3 €		+5 kuña	272,25 €
100 kuña	2,95 €	-5 %	+10 kuña	339,10 €
150 kuña	2,90 €	-5 %	+20 kuña	500,03 €
300 kuña	2,80 €	-10 %	+30 kuña	914,76 €

25º Segundo	Bakoitza Unidad	Beharapena Descuento	Oparia Regalo	Danataria Total
Menos de 25 kuñas 25 kuñatik behera	3,65 €			
25 kuña	3,60 €			108,9 €
50 kuña	3,5 €			211,75 €
75 kuña	3,40 €		+5 kuña	308,55 €
100 kuña	3,35 €	-5 %	+10 kuña	385,08 €
150 kuña	3,30 €	-5 %	+20 kuña	589 €
300 kuña	3,20 €	-10 %	+30 kuña	1.045,4 €

B.E.2. Baima / IVA. Inklusio. Agertze Beharapena %10 / Descuento agertze %10.

Saios mulerakuz gero, %20a gehituko da / Elpliego programa + 20%.

Ekoizpene: 3 € (25 kuña baino ghibago) - Producción: 3 €, (Para menos de 25 cuñas)

Dpto. Comercial  
94-618 62 83  
irratika@bermeoko-udala.net

Joshe Plata